

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

AUZOA Urki

Eguna. 2014/10/30

Proposamena, id.  
SAILA:

LABURPENA.

ERANTZUNA.

<b>Obrak</b>	Jasotako kexa: Ubitxa kaleko 4aren inguruan bideak kaltetuta daude.	Oso konponbide zaila duenez, jarduketa askoz zabalago baten barruan bilatu beharko zaio soluzioa.
<b>Obrak</b>	Sansaburu kaleko 1aren aldameneko pasoa hobetzea eskatu du.	Hobeto geratu da Bista Eder eta Eulogio Garate kaleen arteko igogailua jartzeko obrekin.
<b>Obrak</b>	Jasotako kexa: Errekatxuko espaloiek desnibel handiegia dute.	Eremuaren ezaugarriak aztertu dira, eta lan aproposenak oinezkoen pasabide goratu bat egitea eta beste bat hobetzea direla ondorioztatu da. Horrela, espaloiaren malda murriztea lortuko da, gaur egun, oinezkoentzat deserosoa baita. Lanak hurrengo hilabeteetan hasiko dira.
<b>Obrak</b>	Auzoko pertsona batek galdetu du biderik zabalduko den Bidebarrietatik Errekatxura bitartean.	Bide hori Errekatxuko hirigintza-jarduketarekin batera egitekoa zen, sustapen pribatukoa, baina hura geratuta dago. Herritik egin ditzakegun hobekuntzak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen ari gara, eta agintaldi honetan zehar bilatuko dugu Bidebarrieta eta Bista Eder-Errekatxu elkartzeko konponbideren bat.
<b>Obrak</b>	Igogailu berritik Errekatxura bidea zabaltzea eskatu dute.	Lan hori urte hasieran egin zen.
<b>Obrak</b>	Polonia Etxeberria kaleko 9. zenbakiaren alboan dagoen kurba zabaltzea eskatu du.	Eskaera Udaltzaingoarekin batera aztertu da eta ez da beharrezkotzat ikusten.
<b>Obrak</b>	Kexatu egin dira Urki Kurutzekuko etxeetara ematen duen aldean autobidetik doazen autoek zarata ateratzen dutela-eta. Zarataren kontrako panelik jar dezaketen galdetu dute.	Eibarko Udalak jaso du auzokoen ardura hori eta Foru Aldundiari eskaera luzatu dio.
<b>Udaltzaingoa.</b>	Auzoko kaleetan txakur kaka asko dagoela salatu du.	Inspekzioak egiten dira txakur jabeak antzemateko, beren txakurrak egindako kaka jasotzen ez dutenak. Bateren batek ez duela jasotzen ikusiz gero, salatu egiten da.

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

AUZOA Urki

Eguna. 2014/10/30

Proposamena, id.  
SAILA:

LABURPENA.

ERANTZUNA.

<b>Zerbitzuak</b>	Kexa: ura presio handiarekin botatzen duen makinak baldosak apurtu egiten dituela eta, gainera, gauzak zikin uzten dituela.	Udal Lantaldeko arduradunari abisua eman zitzaion hurrengo batean kontu handiagorekin ibiltzeko.
<b>Zerbitzuak</b>	Auzoko pertsona batek galdetu du Urkiko argi-patioaz, 19an eta 21ean.	Inguru hartan apurtuta zeuden baldosak konpontzeko agindua eman zen, baita 21 eta 23 zenbakiko etxeen pegoretara ematen duten pasabideen hormak pintatzeko ere. Lan biak eginda daude.
<b>Zerbitzuak</b>	Errekatxu kalea garbitzen duen kale-garbitzaile andreak egiten duen lana goraiatu dute.	Mankomunitateari horren berri ematen duen jakinarazpena bidali zaio.
<b>Zerbitzuak</b>	Ubitxa-Urki igogailuaren obra inguruan arratoiak daudela salatu dute.	Udalerrian arratoiak akabatzeko ardura duenari abisua pasatu zitzaion inguru hartako arratoiak kentzeko egin beharrekoak egin zitzaion.
<b>Zerbitzuak</b>	Eulogio Garate kaleko 1ean kartoi-dukiontzia sarriagotan hustea eskatu dute.	Astelehenetan eta ostegunetan husten da papera eta kartoiak biltzen duen dukiontzia. Hala ere, egunero errebisatzen da dukiontzia kanpoko aldean kartoirik dagoen ikusteko, eta badago, erretiratu egiten da.
<b>Zerbitzuak</b>	Urki kaleko 2,4,6 eta 8 zenbakien osteko horma hobeto garbitzea eskatzen dute.	Horma hartako sasiak ezpondetan eta horma zailtan aritzen den enpresa espezializatu batek kendu ditu.
<b>Zerbitzuak</b>	Errekatxu eta Sansarubu kaleetako espaloietan ugaramaria edo berdina dagoela salatu dute.	Kanpoko enpresa bat hartu zen Sansaburu eta Errekatxu aldean espaloietan irrist ez egiteko tratamendua emateko.
<b>Zerbitzuak</b>	Ubitxa kaleko 4an dagoen barandaren baldintzak hobetzea eskatu dute.	Lan-agindua egin zen eta baranda hura berreskuratu eta pintatu egin zen.
<b>Zerbitzuak</b>	Kexa: Ubitxa kaleko 4aren inguruak ez daudela oso garbi.	Mankomunitateari idatzi bat bidali zitzaion inguru hartako garbiketa sakonago egiteko eskatzen. Harrez geroztik, aurreneko garbitze-lana mangera batekin egin zen, eta kale-garbitzaileak inguru hura garbi mantentzen du.

HERRITARREN PARTEHARTZEA.

AUZOA Urki

Eguna. 2014/10/30

Proposamena, id.  
SAILA:

**LABURPENA.**

**ERANTZUNA.**

**Zerbitzuak**

Ubitxa kaleko 4an dauden lorategiak hobeto zaintzea eskatu du.

Lorategien mantentze-lana aldizka egiten da, eta neguan mantentze-lan sakonagoa egiten da.

**Zerbitzuak**

Kexa: Urki kaleko 22 zenbakiko eraikinaren albotik dauden eskaileretan ugaramaria dagoela.

Lan-agindu bat egin zen presioko makina handik pasa zedin.